

BELARDI LORETSUEN LEHIAKETA

Laburpena eta epaimahaiaren epaia

POCTEFA GREEN Europako proiektuaren esparruan, eta zehazki haren 5. ekintzan (Biodibertsitatearen kontserbazioa espazio irekietan), "belardi loretsu"en lehiaketak sustatu dira alde batetik, jada horiek antolatzen ari ziren bazkideen artean (Pyrénées Ariègoises parke naturala, Frantzia), eta bestetik, baita Kataluniako Pirinioetako eta Andorrako parkeetan ere, non aurten hasi diren ekimen honekin. "Mugaz gaindiko lehiaketa" bat ere sortu da hiru eremu horien artean.

Pirinioetako naturaguneak sarean sartzeko Europako proiektu horrek aukera eman digu ekimen horren berri izateko eta gure lurraldera ekartzeko. Aurtengoa, EAEn egiten den belardi loretsuen lehenengo lehiaketa da.

Belardi loretsuak erein gabeko belardiak dira –lore eta fauna espezieetan aberatsak- eta animaliei jaten emateko mozten dira, edota aberea bertara larratzera eramanz kudeatzen dira. Bazkaren ekoizpena eta biodibertsitatearen babesa uztartuta, xedea da abeltzaintza eta belardien kudeaketa nekazaritza ustiatzeko sistemen erdigunean jartzea.

Belardi loretsu edo sega belardi hauek habitatari lotutako espezie dibertsitate handienetako bat duten habitatak dira, bai faunari bai florari dagokienez. Frantzian, kultura ondarea dira gainbeheran dagoen nekazaritza ohitura baten ondorio izateagatik.

Sega belardiak Batasunaren intereseko habitatak dira Habitat Zuzentarauan, eta 6510 habitatari dagozkio. Azken hamarkadetan lurraldearen erabilera aldaketak eragin du, alde batetik, belardi horiek bertan behera uztea, eta, bestetik, ekoizpena handitzera bideratutako erabilera intentsiboa hedatzea. Bi egoera horiek direla-eta ia belardi horiek guztiak kontserbazio egoera txarrean daude egun. Ekimen honekin lortu nahi dena da belardien kontserbazioa sustatzea, nekazaritza eta ekologia bikaintasuna sarituta.

Lehiaketa hauek egiteko arrazoiak, honakoak dira: Belardien mozketak atzeratzea (horrekin belardiko lore gehienak loratu daitezela lortzen delako eta hala biodibertsitatea hobetzen delako) eta mozteari berari garrantzia ematea. Lehiaketa hauetan balioesten dira, lurzattia nekazaritzaren aldetik modu jasangarrian maneiatzea, funtzionalitate ekologikoa, landare dibertsitatea, erlezaintza balioa, paisaia balioa, eta abar.

“6510. Sega belardiak” habitataren kontserbazioa lehentasunezkoa da Europako Erkidegoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, kontuan izanda zer nolako gainbehera egoeran dagoen egun.

BELARDI IRABAZLEA

Lehiaketan, 5 abeltzainek parte hartu zuten, 4 gizonek eta emakume batek. Horietatik 3 Arabakoak ziren eta 2 Bizkaikoak. Epaimahaiarentzat ez zen erraza izan epaia ematea, haiek guztiek sega belardi oso interesgarriak kudeatzen baitituzte. Guztiek lortu zuten puntuazio altua, eta lehenengo saria emateko lehia handia egon zen.

Ikuspuntu botanikoa oinarritzat hartuta, Maricarmen López de Uralderen sega belardia koloreagatik nabarmendu zen, landare loredun asko zegoelako. Haren belardian 40 flora espezie desberdin inbentariatu ziren. Ez zen izan espezie desberdin gehieneko belardia, bazegoelako beste bat 46 espezierekin, baina bai lore kantitate gehien zeukana, espezie bakoitzak banako asko zeuzkalako.

Intsektu polinizatzaileak kontserbatzearen ikuspuntutik, intsektu polinizatzaile talde handiak kontuan hartuta, *Coleoptera* (kakalardoak), *Diptera* (euliak), *Lepidoptera* (tximeletak) eta *Hymenoptera* (erleak, erlastarrak, liztorrak eta inurriak), Maricarmenen belardian neurtu zen espezieen ugaritasun eta dibertsitaterik handiena.

Eta kudeaketaren ikuspuntutik, nahiz eta denek egiten duten lan nahikoa txukuna, haren lana nabarmendu behar da, belarra bi aldiz mozten duelako eta gero abere desberdinekin larratzen delako (behiak eta ardiak), ukuiluko simaurra botatzen duelako belardia ongarritzeko, ekoizpen nahikoa handia daukalako eta biltzen duen belarra aztertzen duelako.

Gainera, nabarmendu behar da belardiak kokagune duen ingurune naturala oso ongi kontserbatua dagoela, bertako basoez inguratua, eta lurzatien arteko hesi naturalak mantentzen dituen.

Belardi loretsu oneraren saria ekainaren 21ean banatu zen Sarriako parketxean, Gorbeia parke natural izendatu zen egunean, bat etorritik haren 25. urteurrenarekin. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu Josean Galera Carrillo jaunak eman zion saria Maricarmen López de Uralde andreari.

